

 GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

147. zenbakia

98ko azaroak 13

**San
Martin
inguruan,**

Beasain

Ataun

Gabiria

**festa
eta
azoka
ugari
Goierriin**

Zegama

Ordizia

JOXE TELLERIA, S. M.

**Aseguruak
Korreduria**



AGF UNIÓN



FÉNIX

**ZURE BIZITZA ETA ONDASUNAK
ONDO ASEGURATU NAHI BADITUZU,
BADAKIZU NORA JO**

☎ 943 88 26 43 - 943 88 71 55 - Faxe: 943 88 71 55

Erauskin Plaza, 2

BEASAIN

GOIERRIKO ODOLKIGILEAK

Arg.: Xabier Mujika



OIANGUREN HARATEGIA



- ✓ Odolki eta mondejuak
- ✓ Txorizo eta tripakiak
- ✓ Baserriko haragia

Gipuzkoa, 15

☎ 943 88 01 42

ORDIZIA

PELLO HARATEGIA

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

*Otordu ona egiteko
okel eta odolki onak ezinbesteko*

Mariaratz, 2 ☎ 943 88 80 11

BEASAIN



OIARBIDE HARATEGIA

Odolkiak eta bertako haragia

Elosegi, 52
Elosegi, 15

☎ 943 88 17 17
☎ 943 16 05 16

LAZKAO

Oiano Harategia

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**



Odolki eta bertako
haragitan
berezitasuna

Andra Mari, 3 ☎ 943 88 07 78

BEASAIN

IÑAKI ZUBELDIA

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**



Bertako haragiak,
odolki, lukainka,
saltxitxa eta aurrez
prestatutako janariak

K. Nagusia, 14 ☎ 943 88 27 47

BEASAIN



J. MUJIKA Harategia

Nafarroa Etorb. 31 ☎ 943 88 04 88
BEASAIN

Nagusia, 16 ☎ 943 88 18 32
Gipuzkoa, z/g ☎ 943 88 08 78
Etzea ☎ 943 16 06 02

ORDIZIA

IÑAKI KANPOS AUTOZERBITZUA

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

Ordiziako dastaketan 97.
urtean irabazle



- ✗ Bertako haragia
- ✗ Odolki, txorizo eta tripaki bereziak

Zumalakarregi, 4 ☎ 943 88 28 27 **ORMAIZTEGI**

HESTEBETEA



"ORMAIZTEGI"
ODOLKIAK

JESUS MARI DEBA

Nekazaritza eta
Arrantza Sailak
baimendua

- Barazki eta arroz-odolkiak
- Mondejuak

Bereziak harategi eta
jateetarako

Anduaga Industrialdea, 9
Zumalakarregi Plaza, z/g

☎ 943 72 17 10
☎ 943 88 26 59

EZKIO-ITSASO
ORMAIZTEGI

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: (943) 88 96 12

Faxa: (943) 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Jon Ordoñez, Ur-
ko Irastorza, Xanti Etxeberria,
Maider Azurmendi, Saroi Jauregi,
Iñaki Gurrutxaga, Aitziber
Murua, Josune Amondarain, Pe-
llo Barandiaran eta Josepa Mada-
riaga.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Ona grafikak
(Artika - Nafarroa)

Tirada: 7.200 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.**

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Odolki lehiaketa Beasainen
azaroaren 14an**

XIV. Odolki Lehiaketa jo-
katuko da Beasainen, azaro-
aren 14an, Udazken Kultu-
ralaren barruan, Beasaingo
Odolkiaren Kofradiak anto-
latuta. Loinazko San Martin
plazan izango da lehiaketa.
Epaimahaikideak, Martin
Berasategi eta Jose Juan
Castillo sukaldari ospetsuez
gain, herriko sukaldariak
ere izango dira. Aurten anto-
latzaileek ahalegin bere-
zia egingo dute, emakumez-
ko sukaldariak ekartzeko.
Pelotariak, Kortezubiko al-
katea (Marko), Odolki Ko-
fradikoak eta Mungiako
dendari elkartekoak ere
izango dira probatzaileak.

Sari bakarra banatuko
da: 25.000 pezeta eta zera-
mikazko platera. Irabazle-
ak, otsailaren 5ean Odolkia-
ren Kofradiak egiten duen
urteroko bazkarirako odol-
kiak prestatu beharko ditu.
Iazko irabazlea Segurako

Itziar Aranburu izan zen.

Azoka berezia

Odolkiak lehiaketara aur-
kezteaz gain, herritarrek
odolkiak dastatzeko aukera
ere izango dute. Txozna ja-
rriko dute antolatzaileek
odolki-pintxoak eta edaria
saltzeko. Beasaingo haraki-
nek ere odolkiak salgai ja-
rriko dituzte.

Egun honetan odolkia
izaten bada ere protagonista
nagusia, Euskal Herriko
hainbat produktu erosi ahal
izango dira, San Martin pla-
zan bertan egingo den azo-
ka berezian. Gazta, sagar-
doa, ezti, Ibarrako pipe-
rrak, Nafarroako kon-
tserbak, baserriko ogia, ba-
razkiak... Tarteak, Beasain-
go 'Martintxoak' pastelxo-
ak. Goizeko 10etatik aurre-
ra egongo dira postuak.
Odolki lehiaketa, berriz,
eguerdiko 12etan hasiko da.

BOTA BERTSOA



Aitziber Garmendia

*Goierriko bertso-eskolako
ikaslea*

Mitch hurakana

*Doinua: Zortziko
nagusiko edozein*

Ertamerikak igorri digu
laguntza dei mingarria
hurakan batek irentsi ditu
biztanle eta herria
milaka jende, mila arima,
ta itxaropen urria.
Hurakanaren inpernupean
beldurraren iturria.

Umezurtz pila, negar malkotan,
bakardadearen mina
eta atzetik Estatuaren
joko luzun eta zikina:
bidalitako dirua ostu
begi zorrotz, esku fina
hango jendeak, zer egingo zon
denok horrela bagina.

*Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

ERREZETA



Julio Rivas
Zegamako Ostatua

**BAKALAO ETA GANBA
BUÑUELOAK, PANADERA
PATATA ETA PIPERREKIN**

Osagaiak: 125 gr. irin, 125 gr. gurin, gatz, azukre, 125 ml. ur, 125 ml. azukre, 300 gr. bakailao, 100 gr. ganba, perrexila, 2 patata, tipula erdia, piper morroi bat, 2 piper berde eta 4 arrautza.

Pasta egiteko, ontzi batean, ura eta esnea, gatz eta azukrearekin jarri. Gurina gehitu eta sutan jarri, gurina ondo urtu artean. Irina bota eta nahasten joan, pelota bat egin arte. Ondoren, 4 arrautza gehitu eta ore krematsua lortu arte nahastu.

Bakailaoa egiteko, tipula oliotan egiten jarri, eta gero, bakailaoa eta ganbak bota. Erreogatzan utzi 2 minutuz. Sutatik kendu, eta pastari gehitu.

Buñueloen azpian jartzeko, patatak oso fin ebaki, baita piperrak tiratan ere. Patatak uretatik pasatu fekula kentzeko. Olio piska batean, plantxan, su bajaran jarri, 10 minutuan. Labean sartu, 200 gradutan eta 10 minutuz, patatak gorritzeko.

Zerbitzatzerakon, patatak azpian jarri eta buñueloak gainean. Buñueloak egiteko, goilarakada bat ore hartu eta oliotan frijitu.

AHOLKUA

Errenta Aitorpen berriaren inguruan



Pello Barandiaran
Gertu aholkularitza

Urriaren 27an Gipuzkoako Foru Aldundiak 1999 urtean Errenta Aitorpena arautuko duen legediaren ardatz nagusiak onartu zituen. Legedi horren garapena ondorengo hilabeteetan aurrera eramango bada ere, dagoeneko zenbait aldaketa aurrikusi dira.

Nork ez du aurkeztu behar Errenta Aitorpena?

5 milioi bitarteko lan etekina duenak, 50.000 pezeta baino gehiagoko ondare gehikuntzarik ez badu izan urtean zehar, ez du errenta aitorpena egin beharrik izango.

Lan etekinak

Lan etekinak murrizketa bat jasango dute lan etekin garbia zenbatekoa denaren arabera: 1,25 milioi arteko lan etekinak, 625.000 pezetako murrizketa, 350.000 pezetako 2,5 milioien gainetik daudenak, eta tartekoek erdibideko murrizketa bat.

Kapital higigarriaren etekinak

● Bi urteren buruan lortutako etekinak tarifa orokorraren arabera ordainduko dute.

● Bi urte baino gehiagotan lortutako etekinak edo etekin irregularrak, tarifa orokorraren arabera ordainduko dute baina aurrez kenkariak egin ondoren.

● Ondare gehikuntza eta urripenak %20a ordainduko dute.

Kapital higiezinaren etekinak

Ohiko etxebizitzari nahiz garajeari edo alokatuta daudenei, ez zaie etekinik atxikiko. Beste etxebizitzari kastroko balioaren %2a atxikiko zaie (gastu bezala ondasun higiezinaren gaineko zerga kendu ahal izango da).

Enpresario eta profesionalen etekinak

Etekinak neurtzeko orainarte zeuden sistemak mantendu egiten dira eta aitorpen sinplifikatu bat sortzen da, 50 milioi baino gutxiagoko irabaziak dituztenentzat. Moduloak mantentzen badi-ra ere, urte amaieran etekin erreala aitortu beharko dira. Haziendak aitorpen osagarri bat, hori bai, errekaru nahiz isunik gabe bidaltzeko ahalmena izango du, bere datuekin estimatzen dituen etekinak aitortutakoak baino altuagoak balira.

Berrikuntza bezala enpresarioek eta profesionalak, beraien ondasunen zerrenda aurkeztu beharko dute. Zerrenda honek, besteak beste, beraien etekin erreala ateratzeko balioko dio haziendari.

Aurrikuspenerako entitateak eta pentsio fondoak

Lan etekin garbien %20 eta 1,1 milioi izango dira kenkariaren topeak.

Kenkari edo dedukzioak


● Etxebizitzaren inbertsioa: 30 milioien gain bakarrik egin ahal izango dira kenkariak edo dedukzioak. Kapitalaren %15 eta interesen %20 bakarrik kendu ahaliko dugu. Base ezargarri murriztuaren %60 izango dute muga aurreko bi portzentai hauek.

● Famili kenkariak: Lehenengo haurrarentatik, 55.000 pezeta; 2. haurrarentatik 60.000; 3. arengandik 80.000; Aurrekoengatik 31.000 pezeta eta ezinduenengatik 62.000 pezeta.

● Gaixotasun gastuak: gaixotasun-gastuengatik zeuden kenkariak desagertu egiten dira.

● Seme-alaben mantenua: Bananduak dauden bikoteek seme-alabei pasatzen dien pentsioagatik %15a kenduko dute beti ere muga batzuen barruan.

Orokorrean, eta ahalmen ekonomiko txikiaren duten pertsonentzat bereziki onuragarria izango dela diote pertsona fisikoaren gaineko zerga eraberritu hau. 2000. urtean aurkeztu beharko ditugun aitorpen emaitzen zain geratzen gara.



ondoeta

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

TXANDAKA

Maitasun kontuak

Bizitzea tokatu zaigun gizarte honetan, bikote mixtoentzat bakarrik dago tokia. Sexu berekoa maitatzea, sexu berekoarekin gozo agertzea, *itsusi* ikusia dago. Gainera, elkar maite duten sexu berekoak nekak badira, hor nonbait, baina mutilak badira...!? Homosexualitatea = Eskandalua.

Mutilak, gizonezkoak, indartsua behar du izan, ausarta, ARRA! Artasuna harro erakutsi behar dio nekari, emakumezkoari. Ez nigarrik, ez mimorik, ez goxotasunik.

Emakumezkoak delikatua behar du izan, fina, goxo-a, EMEA. Negar egiten duenean, mimoak eta goxotasuna behar dituenen, eskerrak arrak *zaindu* eta *babestuko* duen, bestela zer litzateke gaixoaz?

Bikote mixtoetan, gurasoen seme-alabei ematen dieten maitasunean, ama da, gehienez eta batez ere, inongo lotsarik gabe eta nonahi, bai semei, bai alabei, maitasuna agertzen diena. Aita gehiago erreprimitzen da, gehiago kostatzen zaio seme-alabak laztantzea, musukatzea. Gainera, alaba tira, baina semea bostekoa estutzearekin konformatu beharko da.

Eredu horrekin, abiapuntu horretatik, nola ausartuko gara ba gazteok, maite ditugun lagunei, neskei zein mutilei, maitasuna lotsa edo beldurrik gabe azaltzera?

Emakume guztiok daukagu artasuna, batzuk gehiago, besteak gutxiago eta gizonezko guztiok duzue emetasuna, batzuk gehiago, besteak gutxiago. Sentsibiltatea da guztioi falta zaiguna.

Eskerrak gu baino gazteagoetan aurerrapausoak somatzen ditudan. Zorionak eta alimo gazte ausartok!

Joxepa Madariaga



Nola ospatzen duzu Zegamako San Martin azoka?



Imanol Ruiz de Egin

27 urte, langilea
zegamarra

Ni baserritarra naiz eta egun hau guretzat egun handia da izaten. Ganadua jaisten dugu herrira eta eguerdian bazkaria izaten dugu. Gauen parrandarako astia hartzen dugu.

Xabier Arakama

25 urte, musika irakaslea
zegamarra

Lana izaten dut goizean eta eguerdian iristen naiz Zegamara. Pintxoak edo taloa jan, familiako bazkaria egin eta gauean parranda piska bat egiten dut. Egun oso polita izaten da.



Martin Berasategi

79 urte, erretiratua
zegamarra

Egun berezia da, ganadu peria izaten da. Ahal den ondoena ospatzen saiatzen gara. Orain adinako arrakastarik ez zuen izaten lehen.



MUJIK



BEASAIN ☎ 943 88 74 00

TAROT

Gixane

☎ 948 - 46 87 27
ALTSASU



☎ 943 88 96 67 ZALDIBIA



MUJIK

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

ZINEA

GOIENIZ:

Azaroak 26, 'La infancia de Ivan' 21:00etan, Usurbe antzokian.

BEASAIN:

'Negociador'. Ostirala 13: 22:15; larunbata 14: 19:30 - 22:15; igandea 15: 19:30 - 22:15; astelehena 16: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Romance peligroso'. Ostirala 13: 22:15; larunbata 14: 19:30 - 22:15; igandea 15: 19:30 - 22:15; astelehena 16: 19:30.

'La tribu de los kripendorf'. igandea 15: 16:45

MUSIKA

ARAMA:

Azaroak 13, Kristina eta Amaia taldea, 23:00etan, plazan.

Azaroak 14, Sorginbeltz eta Furunda taldeak, plazan, 23:00etan.

'La infancia de Ivan'

Andrei Tarkovski
(Sobietar Batasuna, 1962)

Bere aitak, Arseni Tarkovski poetak, 3 urte zituela utzi ondoren emakumez inguratuta pasako du haurtzaroa. Pintura, musika, arabiera eta geologia ikasi zuen eta Moskuko zine eskola ospetsuan sartu zen 1954an. 'Andrei Tarkovskik' 7 film burutu zituen, horien artean, Andrei Rubliov, Ispilua, Stalker eta Ivanen Haurtzaroa (bere lehn luzea) aipagarrienak.

12 urte dituela, gurasoak eta arreba txikia galtzen ditu Ivanek Bigarren Mundu Gerra dela medio. Berehala bere herrialdeko armadari laguntzeari ekingo dio, lanbide garrantzitsuak arrakastan osoz burutuz etsaiaren erretagordian.

ATAUN:

Azaroak 13, Triki-ta-ke taldearen dantzaldia, 24:00etan hasita.

Azaroak 14, Maixa eta Ixiar, 24:00etan.

BEASAIN:

Azaroak 13, Imanol Lartza balen kantaldia, Usurbe Antzokian, 22:30etan. Sarre-rak: 800 pezeta.

Azaroak 15, Goierriko txistularien kontzertua, Loizazko San Martin plazan, 12:30ean.

ITSASONDO:

Azaroak 20, Txanbela folk taldearen kontzertua, 22:30ean, Errota pilotalekuan.

LAZKAO:

Azaroak 18, Gregoriano kontzertua, Easo abesbatza-ren eskutik, 19:30ean, prailetan.

Azaroak 25, Xabier Amurizaren Bizkaiko koplen emanaldia, Maizpiden, 9etan.

ORDIZIA:

Azaroak 13, 'Aita Donostia' Kamara orkestra eta San Ignacio Eskolania, Parrokian, 20:30ean. Bach musikaldiaren barruan.

Azaroak 14, Iruñako Katedraleko Musika Kapera Parrokian, 20:30ean. Bach musikaldiaren barruan.

BERTSOLARIAK

ATAUN:

Azaroak 13, Bertso-jaialdia: Joxe Agire, A.M. Penagarikano, Andoni Egaña, Joxe Munduate, Aitor Mendiluze eta Maddalen Lujanbio. 22:30ean, Kiroldegian.

ANTZERKIA

BEASAIN:

Azaroak 14, Louviers taldearen 'Lourviestory', Usurbe Antzokian, 23:00etan. Sarre-rak: 800 pezeta.

Azaroak 15, Kale-antzerkia: Trapu Zaharrak taldearen 'La averia' lana, Bideluze plazan, 18:00etan.

Azaroak 20, Ordiziako Antzerki taldearen 'Romeo eta Julieta' antzezlan, Usurbe Antzokian, 20:00etan.

ZEGAMA:

Azaroak 15, Ordiziako Antzerki taldearen 'Romeo eta Julieta', Zinean, 18:00etan.

DANTZAK

BEASAIN:

Azaroak 14, Aurtzaka taldearen Euskal Dantzen jaialdia, Loizazko San Martin plazan, 19:00etan.

IKUSENTZUEZKOAK

IDIAZABAL:

Azaroak 19, Imanol Lasaren 'Ekuador, kontrasteen lurraldea' ikusentzuezkoa, Kultur etxean, 19:00etan.

ORMAIZTEGI:

Azaroak 13, Joanito Oiarzabalaren 'Shisha-Pangma' ikusentzuezkoa, Zubipe kiroldegian, 19:30ean.


HITZALDIAK

IDIAZABAL:

Azaroak 18, 'Tititako minbizia garaiz harrapatzea' gaiari buruzko hitzaldia, 17:30ean, Kultur etxean.

Agiriarren honen esbuzko agurra.

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

ORDIZIA:

Azaroak 17, 'Nork bere burua estimatzea zeinen garrantzitsua den osasun onazateko', Eskarne Larrinaga pedagogoaren eskutik, Barrenan, 15:30ean.

Azaroak 24, 'Osasuna sustatzeko lantegia' Gizarte hezkutzaaren eskutik, Barrenan, 15:30ean.

Azaroak 26, 'Koerant-zunkizuna: aldaketarako aukera', Maite Barreña, Aukera berdintasunerako agentearen eskutik, Barrenan, 15:30ean.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Azaroaren 15era bitartean, VII. Aire Zabaleko pintura lehiaketako lanen erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan.

Azaroaren 18tik abenduaren 4ra arte, 'Beasaingo Baserriak' argazki erakusketa, Argizpi Argizaleen Elkar-teak antolaturik, Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan.

Azaroaren 27ra arte, Eva Lizarragaren pintura erakusketa, Aterpe tabernan.

LAZKAO:

Azaroaren 16tik 20ra arte, Manu Pagolaren Pirograbatuen erakusketa, Udaletxeko Areto Nagusian.

ORDIZIA:

Azaroaren 22ra arte, Aquilino Gonzalezen 'Jatorri jokoa' eskultura erakusketa, Barrenan.

Azaroaren 24tik abenduaren 5era arte, 'El arte de la Escritura' erakusketa, Barrenan.

MENDI-IRTEERAK

Ordiziako mendizaleak:

Azaroak 15: Astigarraga-Santiagomendi-Ereñozu.

Azaroak 22: Ganbo.

Idiazabalgo mendizaleak:

Azaroak 22: Idiazabal-Urduña.

URRIAN SALDUENAK

LIBURUAK:

- 1- Euskal zibilizazioa (Gaiak)
- 2- Mundua gizonarentzat egina... Artze (Artze)
- 3- Morris pocket hiztegia Morris (Harluxet)
- 4- Oinez Xabier Egaña (Arabera)
- 5- Diario de Aguirre Agirre (Txalaparta)

DISKOAK:

- 1- Ruper Ordorika 'Dabilen harria' (Nuevos medios)
- 2- Urtz 'Lur gazian amets ereinez' (Gor)
- 3- Benito Lertxundi & Euskadiko orkestra sinfonikoa (Elkar)
- 4- Bide ertzean 'Bide ertzean' (Gaztelupeko hotsak)
- 5- Kaos etiliko 'No hay agua' (Gor)

Baga-Biga Kulturgaiak emandako zerrenda

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

☐ Ehizeko 2 txakur salgai (erbi txakurrak dira). 943 886521.

☐ Oso gutxi erabilitako 2 metroko tresiloa salgai. Deitu 943 889687 telefonora, 20:00etatik 23:00etara.

☐ Arroiletako Neoprenozko trajea (bikoitza) salgai. 4 taila. Eskarpinak, eskularruak eta ur azpiko botak. 943 160160 edo 989 412266.

☐ Klarineta jotzen ikasten hasi naiz. Norbait berea utzita eta salgai badu, hitz egin genezake. 943 652207. 20:00etatik 22:00etara deitu.

☐ Umeentzako kotxe-silla salgai. Tel: 943-653159

Etxebizitzak:

☐ Bilbon (Deustua), bi pertsonentzako logela bat konpartitzeko neska bat behar da. Pisu eguzkitsua eta berogailu zentralarekin. 939-069093. Ana. Gaueko 9etatik aurrera deitu.

☐ Zegaman pisua salgai, berogailu zentralarekin. Ana. 943 593478.

☐ Pisua salgai Ordizian. 88 m². 943 88 54 63 Mikel edo Elena.

☐ Pertsona baten bila nabil Ordizian pisu bat konpartitzeko. 943 881119. Arantza.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain). 943-88 05 87.

Azaroak 14-15: Jauregi (Santa Maria, 2 - Ordizia). 943-160949.

Azaroak 21-22: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943-880232.



ARANDIA
Garaiea

LADA
Ssang Yong
N-1, z/g
943 88 09 47

AUTOEN KONPONKETA
Iurre Auzoa
OLABERRIA



Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara
Zaldizurreta, 7 943 88 98 44 BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA
Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Lehen hezkuntza
- ✓ DBH, LOGSE
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Aprehendiza arazoak

943 160 120
Joan Iturrilalde, 5 BEASAIN

Ordizia eta Beasaingo ikastolek Urruñako Ikastolaren aldeko jaialdia antolatu dute

Azaroaren 21ean, Ordizia eta Beasaingo ikastolek antolatuta, Urruñako (Lapurdi) Ikastola eraikitzen laguntzeko diru piska bat atera eta urruñatarrei elkartasuna adierazteko jaialdia izango da, Ordizian. Iazko ekitaldia oso txukun atera zen eta 700.000 pezeta bidali zituzten Urruñara, Ikastola berria eraikitzeko.

Egun horretan bertan Ordizian Errioxako Ardoaren azoka izango dela eta, informazio hau idazterakoan oraindik zehazteko zeukaten arratsalde parteko eki-

taldiak non egingo dituzten. Ekitaldiari amaiera emateko afaria, hori bai, Ordizia-ko Jakintza Ikastolan izango da, haur eskolako erai-kuntzan.

Arratsaldeko 6etan hasiko da jaialdia. Bertsolari gazteak (Ametz Arzalluz, Mirentxu Artetxe, Alaitz Sarasola eta Aitzol Munduate), Txan mago handia, kantuak, dantzak, taloak, hankaluzeak... izango dira. Gaueko 9,30etan, afaria izango da. Iparraldeko Guk taldearen berragerraldia izango da bertan. Egun ho-



nen aitzakian, 50 bat euskal kantu biltzen dituen liburuxka bat banatuko da. Afarirako txartelak aurrez egongo dira salgai.

Urruñako Ikastola

Iaz hasi zuten Ikastola eraikitzeke diru bilketaren kan-

paina egiten. Ikastola eraikitzeke harri sinbolikoak saldu dituzte eta urtebete pasatu den honetan, dagoneko hasi dira eraikitze lanak. Azaroaren 22an, Mikel Laboaren kontzertua izango da Urruñan.



IV. Iparr-Hegoa Donapaleun

Lehenengo hiru edizioak Hegoaldean (Goierriin eta konkretuki Seguran) burutu badira ere, laugarrena, Iparraldean gauzatuko da lehen aldiz. Azaroaren 27tik 29ra Nafarroa Behereko Donapaleun izango da. Informazioa 22. orrian.

Ikasle Abertzaleak

10 urte dira Ikasle Abertzaleak erakundea sortu zela. Goierriko ikastetxeetan leku handia betetzen du ikasleen mugimendu honek. IAKoek laburbildu digutenez, "Ikasle Abertzaleak, ikaslegoa garai eta toki ezberdinetan dinamikoa eta eraldatzailea izan den kolektibo bat da". Azaroaren 17an Ikasleen Naziorteko Eguna dela eta, Donostian manifestazioa egingo dute, "ikaslegoa etorkizuna garez, ahalik

eta indar gehien behar du-gu, gure eskubideak zapal ez ditzaten".

Ikasleen egunaren aurretik, ordea, azaroaren 14an, IAREN 10. urteurrena dela eta, Diman (Bizkaia) Ekitaldi Nazionala egingo dute, 17:00etatik aurrera. Kale animazioa, erromeria, bertsolariak, ekitaldi politikoa, eta La Polla, S.A. Reincidentes, Etsaiak, Ekon, Beta-garri eta Vendo dell'est taldeen kontzertua izango da. Autobusak antolatu dituzte Goierritik.

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 943 889390 BEASAIN



"Eko Garbi ilargia be-zain garbi"

☎ 943 16 02 23 - 970 95 00 88
Atxisain baserria IDIAZABAL

**Garbiketa eta
mantentze
zerbitzuak**

SERIOITASUNA,
KONFIDANTZA,
PROFESIONALITASUNA

ARRIETA

*Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

JATE TXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

Haurren hauteskundeak azaroaren 21ean

'Haurren ahotsa' kanpaina abian jarriko du Unicef erakundeak, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako ikastetxeetan. Haurren aldeko hitzarmena ezagutzera eman, bere esanahia zabaldu eta giza baloreei buruzko hausnarketak sakon bat egin nahi dira.

8 eta 11 urte bitarteko haurrek, hitzarmenean azaltzen diren eskubideekin loturiko iritzi propioak aldarrikatuko dituzte, haurtzaroaren ongizate eta bizi kalitatearekin loturiko konpromezuak bere gain gain hartuz.

Ikastetxeetan gaia landuko dute aurreko egunetan, kanpaina honetarako Unicef-ek prestatu duen material didaktikoaren bidez. Azaroaren 21ean, egun handia izango da 8 eta 11 urteko haur hauentzat; botatzeko aukera izango baitute. Haurren Eskubideei buruzko hitzarmenetik ateratako haurren 12 eskubide azalduko diren papeletan, bakoitzarentzat garrantzitsuena den eskubidea aukeratu beharko dute.



Goierriri dagokionean, arrazoi ezberdinengatik, Ordizia, Lazkao, Gaintza, Ormaiztegi eta Olaberri ez dute bat egin kanpaina honekin. Gainerako herrietan, leku hauetan izango dituzte hauteskontziak: Arama: Udaletxeko Batzar Aretuan. Ataun: Udaletxeko Batzar Aretuan. Beasain: Udaletxeko Batzar Aretuan. Ezkio-Itsaso: Udaletxeko Batzar Aretuan. Gabiria: Udaletxeko Batzar Aretuan. Idiazabal: Udaletxeko Batzar Aretuan. Itsasondo: Udaletxeko Batzar Aretuan. Legorreta Kultur etxean. Mutiloa: Udaletxeko Batzar Aretuan. Seguran: Liburutegian. Zaldibia: Kultur

etxean. Zegama: Kultur etxean. Zerain: Udaletxeko Batzar Aretuan. Aitziber Azkondo Unicef-eko kideak argitu digunez, Altzagan interesatu ziren baina ez daukate adin horretako haurrik.

Hauteskundearen emaitzak aztertu eta gero, manifestu bat egingo da. EAEko Lehendakariari emango diote haurrek manifestu hori eta Gasteizko Legebiltzarrean ere aurkeztuko dute.

1999. urtearen inguruan, konbentzioaren garapena bultzatuko dituzten ekin-tzen jarraipena eta hedapena egingo duen egitura bat eratuko da.

Araba Errioxako Ardoaren azoka Ordizian

Azaroaren 17tik 22ra bitartean ardoaren astea izango da Ordizian. VI. ekitaldia da aurtengoa, aspaldiko uz-tarik txarrena izan denekoa. Jarraian duzue Udalak prestatuturiko egitaraua: Azaroaren 17tik 19ra, 19:00etan, ardo dastaketa praktikoak izango dira Manuel Ruiz enologoaren eta Mikel Zerberio ataundarraren eskutik. Barrenan eman behar da izena, 943-881280 telefonon. Mugatua da ikastaroa. Azaroaren 20an, oraindik zehazteko dagoen bodega batek bere ardoa aurkeztuko du, Itxaropena elkartean.

Larunbata eta igandean, 21 eta 22an, Araba Errioxako ardoaren azoka izango da. 16 bat ardoglek hartuko dute parte. Urteko ardoak eta ondutakoak dastatzeko aukera izango da Ordizian. Ohiturari jarraituz, kopa bat salgai jarriko da, nahi adina ardo edateko. Trikitilariak eta txaranga izango dira giroa alaitzeko. Azokaren ordutegiak: 12:00etatik 14:30era eta 18:00etatik 21:30era.

KEMEN KIROLAK



ANGEL IMAZ

PINTURA
eta
PAPERGINTZA



943 18 70 49
Ondramuño etxea IDIAZABAL

Olagi Sagardotegia

Orain eguerdietan ere zabalik
Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
943 88 77 26 ALTZAGA



JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko lllantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

943 18 72 57



JOXE AZURMENDI ZEGAMAR PENTSALARIA EZAGUTUZ:

"Ama izan da gure mundua ikusteko eta munduan egoteko moduaren irakasle handiena eta nagusia"

Zegamako Kultur etxeko batzordeak, 'Joxe Azurmendi ezagutuz' jardunaldiak antolatu ditu. Gaur izango da azkeneko hitzaldia eta azaroaren 14an, pentsalari zegamarri buruzko erakusketa ikusgai egongo da. Lerro hauetatik, hain ezaguna den eta aldi berean hain ezaguna den Joxe Azurmendi zertxobait gehiago ezagutu nahi izan dugu. Sustraiak Zegaman hartu, Arantzazun garatu eta formazio intelektuala Alemanian hartu zituen zegamarrak.

1941eko martxoaren 19an, San Jose egunean, jaioa da Joxe Azurmendi, Zegamako Arretxe etxean, Manolo tabernaren ondoan. 11 seme-alaba ziren eta aita, Joxek 11 urte zituela, lan-istripuan hil zen. Haurtzaroa Zegaman bertan pasatu zuen eta 10 urterekin Arantzazura joan zen. "Doktrinaren nentzela joan nintzen Arantzazura. Ez dakit zergatik hartu nuen bide hori. Galdezka ibili naiz, baina inork ez dit esan zergatik izan zen", esan digu Azurmendik.

Frantziskotarren ikasketa sistemarekin jarraituz, 13 urteko ikasketak egin zituen: batxilergoa, Filosofia (3 urte) eta Teologia (4 urte). Ikasketak bukatu eta urtebete egin zuen maisu Gernikan. Handik Erromara joan zen eta beste urtebete ikasi zuen. 1965ean Alemaniara iritsi zen. Franco hil arte,



Joxe Azurmendi eta bere ama, Rufina Otaegi.

1975era arte, bertan gelditu zen. Teologia eta Filosofia ikasi zituen eta hango eskola batean aritu zen irakasle lanean.

Zegama

10 urterekin ateratzen zen Zegamatik eta Azurmendik adierazi digunez, "ume bati gertatzen zaion mundu hori gelditu zait. Segurasko, Zegama beste zegamar inork ikusten, sentitzen eta gogoratzen ez duen bezala gogoratzen dut. Baina niri Zegama asko gelditu zait, nahiz eta nire moduko Zegama bat izan. Mendi eta etxeen izenik ez dakit, baina nire Zegama bat barruan daukat". Ez omen daki oso ondo nolako Zegama den hori. "Mendiak, argiaren kolorea, iturriak. Niretzat oso inportantea da, uda parteko arratsaldeetan, argia piska bat biguntzen hasten denean, enarak txilioka entzutea. Usain eta argitasun batzuk gogoratzen ditut. Aizkórri oso garrantzitsua da".

Eskola garaiko oroitzapenik badu, batez ere, maisuez eta pasatzen zituen lotsa eta beldurrez. "Gerra ondoko eskola zen, oso erraz zigortzen gintuzten, euskara debekatuta zegoen. Eskola falangista batean ibili ginen. Be-soa altxatuta agurtzen zen eta 'Cara el Sol', 'Gibraltar, Gibraltar', 'Isabel y Fernando' eta horrelako kantuak abesten genituen". Garaian hartan, 'Cara el Sol' abestiaren hitzak zegamar batenak zirela ba al zekien galdetu diogu. "Nik neuk ezagutu nuen Joanito Telleria. Umeei karameluak ematen zizkigun. Elizaren ondoren gure umetan, Jauregi izeneko errota zegoen eta presa eta zubi bat zegoen pelotalekura joateko. Joanito Telleria horrelaxe gogoratzen dut: zubi horretako petrilarren gainean eserita eta umeekin hizketan edo karameluak ematen. Hil zenean gainera, eskolan jai izan genuen".

Ama

Ama oso gazte alargundu zen eta bizimodu oso-oso gogorra egokitu zitzaion. Joxek argi dauka bera den bezalakoa izatean, amak zerikusi handia duela. "Askotan, bakarrik gaudenean, zergatik garen garen bezalakoak galdetzen diogu geure buruari. Nahiko garbi daukat sufrimenduaren aurrean, jendearen aurrean eta munduaren aurrean egoteko funtsezko modu horiek, amari zor dizkiodala. Bera izan da gure mundua ikusteko eta munduan egoteko moduaren irakasle handiena eta nagusia. Amak ez zuen eduki nik eduki nuen aukera. Ni Zegaman gelditu izan baintz, fabrikako langilea eta kamioilaria izango nintzateke, anaia bezala, edo artzain. Bistan da, amak ez duela nik izan nuen eskolarik eduki. Baina azken batean eskolak ez dio askorik gehitzen norberak daukan oinarritzko jarrera horri", aitortu digu.

'Joxe Azurmendi ezagutuz' jardunaldi edo omenaldia, amagatik onartu du pentsalariak hain zuzen ere. "Omenaldi bat inoiz eta inon egitekotan, Zegaman eta ama aurrean dagoela egin behar zait. Pentsatzen dut amaren omenaldia dela. Nik Zegamaren aurrean meriturik ez daukat, baina gure amak, piska bat bai. Beste modu batera esanda, nik Zegamari ez diot ezer eman, baina gure amak bai".

Azurmendik, Zegamari ez diola ezer eman aipatu berri digu. Zegamak, ordea, asko eman dio Joxeri: "Sustraiak eman dizkit. Haur-

tzaroko esperientzia. Bizitzen ikasi, lan egiten ikasi, jendea errespetatzen ikasi, zerbaiten kontra eta alde egoten ikasi... horiek umetan ikasten diren gauzen garapenak dira gero. Arazoren bat dagoenean, bakarrik nagoenean, neure barruan sartu, eta oraindik anaia-arreben edo amaren ahotsak entzuten ditut, 'horrelaxe esango lukete haiek' eta orduan kokatu egiten naiz. Hizkuntza ere, gero urte askoan desarrolatu ezin izan nuena, haurtzaroko hura berreskuratzeko eskuratu izan dut berriz".

Arantzazu eta Alemania

Arantzazun, Zegaman hartutako sustraiak garatu zituen. "Esan liteke, ni jaio Zegaman egin nintzela, baina neu izaten hasi, Arantzazun. Arantzazuk niri dena eman dit eta dena zor diot eta dena eskertzen diot". Alemanian, formazio intelektuala hartu zuen. "Alemaniako kultura beste txoke bat izan zen niretzat. Eta berriro erro-erroak berpentsatzera eramaten zaitu eta beste postura bat hartzera. Hori ez da airean egiten, lehendik daukazun sustraiekin, sustrai horiek eraberrituz baik. Gaur daukadan pentsamenduaren forma eta naizen hau ere, ez dago ulertzerik ez Alemaniarik gabe, ez Arantzazu gabe".

Joxe Azurmendiren pentsamendua deskribatzerakoa zera esan digu: "Marxis-

'Euskaldunak eta espainolak', 'Demokratak eta bio-lentoak' eta 'Oraingo gazte eroak' dira Joxe Azurmendiren azken hiru lanak. Liburu bakoitzarekin zer esan nahi izan duen laburtu digu.

'Euskaldunak eta espainolak': arrakasta handiena izan duena da. Aspal-di idatzia da. Nire burua euskaldun bezala deskribitze prozesuan, eduki ditudan problema batzuren erantzuna da. Gure garaian euskaldun izateagatik burla asko edo lotsa asko izan genituen. Lehen ere jende askok uste zuen Zegamatik atera eta Donostiara joatean erdaraz egin behar zuela. Lotsa asko pasa arazi dizkigute. Italia, Alemania eta Frantziako literatura irakurtzen hasi nintzenean konturatu nintzen, euskaldunoi burla egiteko baino tonelada gehiago arrazoi zegoela espainolei burla egiteko.

'Demokratak eta bio-lentoak': Xabier Mendiguren beasaindarrak jarri zion izenburua eta berak jasotako artikulu batzuk dira. Nire ustez, hemen daukagun demokrazia, demokrazia frankista da, buruak aldatu gabe, Estatuari tapa aldatu diote, eta badirudi beste la-

moarekin kritikoa izan naiz beti, baina ukatu ere ez dut egin eta egiten. Nire pentsamendua ez dakit zein den.

piko bat dela. Baina buruek berdin-berdin jarraitzen badute, kultura frankista edo kultura antidemokratiko bat da hemen demokrazia izenarekin jantzi dena. Eta hori da batez ere liburu horretan kritikatzeko dena.

'Oraingo gazte eroak': Europako Bigarren Mundu Gerratik aurrera egon den eztabaida biltzen du: nola gaituzten da kultura ez demokratiko hori. Europar hori eztabaidatu da eta hemen ez. Eta horregatik jarraitzen da lehenengo kulturarekin sistema politiko berri batean.

Liburu edo lan hauek idatzi zituenetik aldaketarik nabaritu ote duen galdetu diogu. "Giroa bai. Azken hauteskundeak zikinak izan direla eta abar esan da. Baina zikinkeria hori ez da berria. Zikinkeria hori soportatzen urte asko damarazkigu. Euskaldunei buruz esaten direnak eta nazionalisten aurka egiten diren zikinkeria horiek dira hain zuzen azken hiru liburuetako gaiak. Batez ere azken bi liburu hauengatik entzun behar izan dut batzutan, demokraziaren kontra nagoela eta abar. Baina hauteskunde hauetan barregurea eman dit, badirudielako

Baina uste dut gaur 'ismo-rik' ez dagoela, edo nik behintzat ez daukat 'ismo-rik'. Mendebaldeko tradizio



JOXE AZURMENDI
PENTSAMENDUAREN INDARRA

batzuek behintzat liburu hori irakurri dutela. Demokrazia espainolari egiten zaizkion kritikak kristaudek demokrazia batzuei entzun dizkiet. Badirudi, segun eta nork esaten duen, gauza horiek ondo daudela eta beste batzuek esanda ez".

ETAren su-etena dela eta ere, egin digu beste go-goeta bat: "ni poztan naiz atmosfera aldatzearekin. Franco hil zenean atmosfera ere aldatu zen piska bat. Bazirudien denak elkarrekin geundela, soluzio arrazoizko eta definitiboa aurkitzeko. Baina denak demokrazia txartela zeukaten momentutik, ahaztu zituzten, obligazio horiek eta edozein astakeria frankista esateko pronto zeuden berriro. Ni beldur naiz berriro ere horrelako zerbait etorriko dela. Orain berriro jarriko gara denok bat etortzeko moduan, eta geroxeago bakoitza berera".

kritikoaren jarraipen bat besterik ez da".

INAUSTI
KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa
943 88 43 01 OLABERRIA

URBITARTE
sagardotegia



Erreserba telefonoa
943 18 01 19
Ergoiena Auzoa
ATAUN

KUBIA
AU-PAIR

FAMILIAK EUROPA GUZTIAN ETA EEBBetan
INGALATERRAKO HOTEL ETA LANDETXEETAN
LANPOSTUAK KONTRATUAREKIN

Arrasate, 33 behe C DONOSTIA
Tel-Faxa: 943 43 15 48

Ataun San Martingo jaiak

Egun handia, asteazkenean izan bazen ere, asteburu honetan ospatuko dira jai nagusiak Ataungo San Martinen. Bertsolari jaialdia, musika kontzertuak, Jentilen etorrera, koadrilen eta umeen egunak... denentzako festak antolatu dituzte. Hiru Auzoetako korrikaldia azaroaren 22ra atzeratu dute.

Azaroak 13, ostirala: Koadrilen Eguna

12:00etan: Juntadizioa eta poteoa Agautz trikitilarietara.

14:00etan: Koadrilen arteko bazkaria Bitor Jatetxean. Ondoren karretila lasterketa.

19:00etan: Kuadrilen arteko Patata Tortila Lehiaketa.

22:30ean: Bertso Saioa Kiroldegian: Joxe Agirre, A.M. Peñagarikano, A.

Egaña, J. Munduate, A. Mendiluze, M. Lujanbio.

24:00etan: Triki-ta-ke taldearekin dantzaldia goizalderarte.

Azaroak 14, larunbata: Umeen eguna

12:00etan: Herriko preso eta errefuxiatuen aldeko zenbait ekintza ezker abertzaleak antolatuta: poteoa, bertsolariak, eta txaranga. Ondoren, preso eta errefuxiatuen gurasoei omenaldia eta bazkaria plazan.

12:00etan: Toka txapelketa Atsedentokian.

13:00etan: Kalejira buruhaundi eta txarangarekin.

14:00etan: Umeen bazkaria.



16:00etan: Mus Txapelketa Aizkoate Elkartearen.

17:00etan: Pailazoen jaialdia kiroldegian: Kiki, Koko, Moko eta Flax.

21:00etan: Herri afaria Bitor Jatetxean. Disfraz gaua.

24:00etan: Maixa eta Ixiar taldearekin dantzaldia goizalderarte. Ondoren, txerri harripaketa plazan. Goizaldera txokolatada eta matutina.

Egunean zehar Antzar Gazteak Txarangak kaleak alaituko ditu.

Azaroak 15, Igandea:

12:45ean: Herriko Dantza taldearen saioa plazan.

18:00etan: Jentilen Etorrera.

20:00etan: Mondejua eta Nahiko orkestrarekin dantzaldia.

Azaroak 22, Igandea:

11:00etan: Ataungo Hiru Auzoetako XIX. Korrikaldia.



ZUBIKOETA GASOLINDEGIA

- Gasolina, gasoila A eta C
- Berogailuentzat gasoil banatzailea
- Autoaren garbiketa moeta guztiak

☎ 943 18 04 86 - faxa: 943 18 04 87
Zubikoeta Industrialdea **ATAUN**

SUKIA HARATEGIA

Festa onak pasa herritarrok!

San Martin

ATAUN

☎ 943 18 03 45

TROSKAETA TABERNA



Jaiak gozo-gozo pasa Troskaetako nesken partetik

☎ 943 18 00 37

ATAUN (San Martin)

Agurtzane Fleapaindegia

Altzanipe, 2

☎ 943 18 02 93

ATAUN (San Martin)

Grupo Bateak

SEGURUEN PROFESIONALAK

Jai zoriontsuak denoi!

MUNDUATE

Hirigoi, 12

Tfnoa.: 88 86 20

Tfno. mugikorra: 909 49 14 41

Faxa: 88 91 18

LAZKAO



Bittor Jatetxea

San Martin zoriotsuak!

☎ 943 18 00 33 ☎

☎ 943 18 00 84 ☎

ATAUN

- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Bataioak
- Oturuntzak...

● *Menua eta karta*

Berezko aparkalekua

Lorategi pribatua

Umeentzako parkea

GOIERRITARRA lagutzeko zozketa **300.000 pezetako BIDAIA zure zain dago!**



200 pezetaren truke

**Oraindik ez al duzu
GOIERRITARRA laguntzeko
errifarik erosi?**

Zeren zain zaude!

ERRIFAK ONDOKO LEKUETAN SALGAI:

- | | |
|---|--|
| ✓ Altzagan: Olagi sagardotegian eta Altzagarate jatetxean. | ✓ Legorretan: Olaso tabernan. |
| ✓ Araman: Toki-Alai jatetxean. | ✓ Mutiloan: Ostatuan eta Lierniko Mujika jatetxean. |
| ✓ Ataunen: Troskaeta tabernan eta San Martingo okindegian. | ✓ Ordizian: Pottoka, Eroski eta Majori kiroldegiko tabernetan, Foto Sistema argazkidendan eta GOIERRITARRAren bulegoan. |
| ✓ Beasainen: Anzizar tabernan eta Bideluze plazako kioskoan. | ✓ Ormaiztegin: Arantxa tabernan eta Estanko janaridendan. |
| ✓ Ezkio-Itsason: Mandubiko Bentan eta Itsasoko Ostatuan. | ✓ Seguran: Imaz tabernan. |
| ✓ Gabirian: Ostatuan. | ✓ Zaldibian: Goiagi okindegian. |
| ✓ Idiazabalen: Xume tabernan eta okindegian. | ✓ Zegaman: Txantone tabernan. |
| ✓ Itsasondon: Ibarre tabernan. | ✓ Zerainen: Mandioa tabernan. |
| ✓ Lazkaon: Gerriko tabernan eta Gerriko liburudendan. | |

"Goierriko herri gehienetan mondeju beltza egiten da"

Ataundik etorri zaigu, aldizkari honetan mondeju zurietaz bakarrik hitz egiten dugunaren kexua. Zaldibian eta inguruan zuriak egiten dituzte, baina gainerako herri gehienetan ere, beltza. Elhuyarren Hiztegi Entziklopedikoan mondejua zer den begiratuta, honela dio: Mondejua: Ahari edo ardien erraiak, gantza, barazkiak eta arrautza-zuringoa (mondeju zuria) edo odola (mondeju beltza) dituen hestebetea. Beraz, gauzak bere lekuan jarri nahirik eta horrelako eskualde txikian bi eratako mondejuak egiten diren harrotasunez, mondeju beltzaz zertxobait gehiago jakin nahian Ataun aldera jo dugu. San Martin jai hauen inguruan, gainera, protagonista berezia izaten da mondejua Ataunen.

Oraindik ere Ataungo etxe askotan egiten da mondejua. Guztiek ere, aurrekoengandik ikasi dute Goierriko produktua den mondejua egiten. Goierri dagokionean, Zaldibian mondeju zuria egiten dute. Hau da, odola

nahastu beharrean, arrautza-zuringoa nahastuz. Gainerako herrietan, gehienbat, beltza egiten da. Hala ere, mondeju beltza, kolorea dela eta, odolkiarekin nahastu izan du jendeak. Baina bat bestearekin ez dauka zerikusirik. Mondejua ardi odolarekin eta gantzarekin egiten da; eta odolkia, txerri odolarekin eta gantz urtuarekin edo mantekarekin.


Odolkiak ordainetan. Mondejuak?

Odolkiak ordainetan izaten direla esaera behin baino gehiagotan esaten dugu. Mondejuekin ez dago horrelako ohiturarik. Zaharrenek dena den, ezagutu dute, mondejuak etxean egin eta bizilagunari probatzeko lain ematen.

Mondejuaren inguruan dena den, bada beste ohitura edo bitxikeria bat. Tabernetan, batez ere, ardia hiltzen zenean, ardi-larrua leihoetan jartzen zen zintzilik, herritarrek laster mondejuak izango zirela jakin zezaten. Batek jartzea nahikoa izaten omen zen, besteak ere ardia hiltzeko, bezerorik gabe gelditu nahi ez bazuen behintzat.

● Kaxetako Adelita Apalategi

Ataungo Kaxeta tabernako mondejuak famatuak dira oso. Adelita Apalategik egi-



Tabernetan, batez ere, ardia hiltzen zenean, ardi-larrua leihoetan jartzen zen zintzilik, herritarrek laster mondejuak izango zirela jakin zezaten.

ten du. Eskuz egiten dute guztia, amagandik ikasi bezala. Tipula eta porrua, eskuz, txiki-txiki egiten dute etxean. Makinaren bat edo beste ere ekarri izan dute, baina Adelitak aitortu digunez, "istrigatuta uzten du tipula, jugo guztia kendu egiten dio". Txikitutako tipula eta porrua zartagian bota, gantza edo seboa eta odola gaineratu, gantza, piperra eta oregano piska bat ere botatzen diote. Gero guztia, eskuz, hesteetan sartzen dute. "Lehen, hildako ardiaren hestearekin egiten zen mondejua. Dena garbi-garbi eginda, etxerako egiteko adina izaten zen. Gaur egun, ordea, harategian erosten ditugu. Heste-

ak garbitzen lan handia da".

Zaldibiako jaiak pasatuta, urria erdi aldera hasten dira mondejuak egiten eta azaroa bukaerara arte egiten dituzte. Santu Guztien eguna, egun handia izaten da, herritik kanpora joandako jendea itzuli egiten baita. Gauzak honela, egun horretan, Ataungo etxe gehienetan, mondejua eta ardikia izaten da protagonista.

Adelitaren etxean, gazte garaian, Eguberrietako jakia izaten zen ardikia. Mondeju-zopa, mondejua eta bixigua. "Gaur bixigurik jaterik ez dago!", esan digu umorez Adelitak. Dena den, Eguberrietan hildako ardia,

ERAUSKIN
HARATEGIA - URDAITEGIA
KALITATEKO
EUSKAL OKELA
Mondeju beltzak eta txorizoak
☎ 943 18 00 27 Helbarrena, 32
ATAUN

ARBIA
ATETXEA
Festa zoriontsuak denoi!
☎ 943 18 00 19 ATAUN (S. Martin)

JOSUNE
ARRAINDEGIA
San Martin zoriontsuak denoi
☎ 943 18 03 67 Altzanipe
ATAUN (San Martin)

gatzetan jartzen zen eta zezina egiten zuten.

Estimazio handia

Kaxeta tabernan estimazio handia daukate mondejuak. Jende asko etortzen zaie, batez ere heldua. Mondeju zopa, mondejua eta ardikia izaten da menua. Askok, postrerako, ardikiarekin jarraitzeko-edo, mamia edo gazta eskatzen omen dute. Gazteek hala ere, gutxi jaten omen dute. "Edadeko jendeak jaten du batez ere mondejua eta hauek ere gero eta gutxiago, grasa asko dauka eta. Egiten ere, adinekoak aritzen gara. Jendeak esaten du, adineko hauek bukatzen direnean, ez dela mondejurik izango", esan digu Adelitaren alabak.

Ataunen bertan estimazio handia daukate mondejuak, baina Tolosatik aurrera ezagutu ere ez omen da egiten. Askok gainera, mondeju beltza odolkiare-



Joxe Ramon Erauskin mondejuak egiten.



Mondejuak estimazio handia dauka Goierriin, bai zuriek eta bai beltzek. Herri gehienetan mondeju beltza egiten da. Goierriko mondejua beltza omen da, Zaldibiakoa zuria.

kin nahasten dutela adierazi digu Adelitak.

● Joxe Ramon Erauskin harakina

Erauskin urdaitegia-harategiko mondejuak ere sona handia daukate. Hantxe harrapatu genuen Joxe Ramon, mondejuak egiten, baina hartu zuen mondejuaren inguruko xehetasun gehiago kontatzeko beta.

Hasteko eguraldiaz hitz egin genuen. "Beroa txarra izaten da mondejuak egiteko; eguraldi freskoa behar da. Eguraldia aldatu egin da, lehenagokoa sanoagoa zen; orain oso aldakorra dago".

Eguraldia aldatu omen da, baina mondejua egiteko betiko era ez du aldatu ataundarrak. Amagandik eta anaiarengandik ikasi zuen mondejuak egiten.

"Hala ere, beti ere, hobetzen joan behar da", esan digu.

Joxe Ramonen esanetan, barazkia ondo egostean dago mondeju onak egitearen sekretua. "Hortik aurrera beste milagrorik ez dago. Tipula, porrua, gatzia, grasa eta odola nahasten zaie". Harategian egindako mondejuak asko erosten dituzte ataundarrek, "baina usarioa, etxean bertan egitea da. Hala ere, jendeak mondejuak egiteko odola, seboa eta hesteak harategitik era-

man ohi ditu". Adelitak esandakoa ere ziurtatu digu Joxe Ramonek: "normalean, Santu Guztien egunean, jendeak ardikia jaten du. Mondejuak ere egun horretarako egiten dira".

Zuriak indar gehiago

Goierriin, Zaldibia inguruan izan ezik, mondeju beltza egiten da batez ere ataundarrek ziurtatu digunez. "Baina txuriak indar gehiago dauka, promozionatu egiten baitute. Jendeak mondeju beltza ez du ezagutzen, odolkiarekin nahasten dituzte". Zaldibitarrek beraien produktua promozionatzeko hartutako bideari jarraitzeko asmorik ez ote daukate galdetu diogu harakinari, baina momentuz geldirik daude. "Jentilen etorreraren bukaeran mondejua ematen da oparitzat", argitu digu.

Irailaren hasieran hasten da mondejuak egiten, baita odolkiak ere. "Eguberrietarako asko jaisten da, baina otsaila-martxora arte egiten ditut. Mondejua gehiago egiten dut, nahiz eta odolkia ere asko egin. Normalean astean behin egiten ditut mondejuak, aste erdian. Ataunen, oraindik ere, mondejua gehiago saltzen da". Hori bai, eguraldi hotzarekin, gehiago saltzen omen da.

"Normalean, Santu Guztien egunean, jendeak ardikia jaten du. Mondejuak ere egun horretarako egiten dira"

INAZIO GARMENDIA

Harategia

☎ 943 18 00 32
Dorronsoro-enea
ATAUN



Koldo KEREJETA AIERBE

IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZAK

☎ 943 18 00 56 - 989 80 51 21 (mugikorra)
Helbarrena, 27 - 2. ezk.

ATAUN

GABIRIAKO ERREZIL SAGARRAREN LEHIAKETA AZAROAREN 22an

"Lehiaketa honi esker gabiriarrok errezil sagarrari duen balioa ematen hasi gara"

Gabiriako Errezil sagarraren III. lehiaketa azaroaren 22an izango da, Gabiriako Udalak eta Erbie Elkarteak antolatuta. Egun horretan baserriko hainbat produkturen artean, nahikoa errezil sagar erosteko aukera izango da, esaera zaharrak dioen bezala, leku guztietatik agirian dagoen herrian.

Azaroaren 22an, goizeko 10etatik ordu bietara bitartean izango da Gabiriako Errezil sagarraren lehiaketa. Eguraldi ona bada, plazan izango da azoka; txarra izanez gero, pilotalekuan. Antolatzaileek adierazi digutenez, erreferentzi puntu garrantzitsua bilakatu da lehiaketa hau eta ondorioz, jende asko biltzen da bertan.

Gabino Murua antolatzai-learen esanetan, lehiaketa baino garrantzitsuagoa da herriari bizitasuna emateaz gain, salmentarako eskaintzen duen aukera. "Lehiaketa denok irabazi nahi dugu, baina lehiaketa irabaztea baino garrantzitsuagoa da



bertako giroaz gain, baserriko produktuak eta, jakina, errezil sagarra saltzeko duzun aukera. Orain arte, Gabiriako jendeak errezil sagarrak etxean gorde edo sagardotarako saltzen zituen. Gainera, horrelako lehiaketa bat irabazten duenari salmentarako bide asko irekitzen zaizkio", argitu du gabiriarrok.

Hirugarren ekitaldia duen lehiaketa honi beste ondorio baikor bat ere ikusten dio Muruak. "Lehiaketan azken batean, konpetentzia dago. Aurkezten dituenak ahalik eta produkturik onenak eramanen ditu eta horrek esanahi du, urtean zehar zaindu egin behar direla. Alde ho-

rretatik, lehiaketa honi esker errezil sagarrak baloratzen hasi gara herrian. Horrekin batera, jendea sagar gazteak landatzen ere hasi da".

Eguraldia

Eguraldiak zerikusi handia du fruituetan eta Gabino Muruak adierazi digunez, aurten fenomeno bitxia gertatu da: "lehenengo loratu ziren loreek alea oso ondo hartu zuten, baina handik hamar-hamabost egunera loratu zirenek, pare bat astez euria atertu gabe aritu zuenez, oso ale gutxi hartu zuten. Sagasti batzuetan izugarri dago eta besteetan ia batere ez".

Omenaldia Miren Agirrezabali

Aurten Oñatibitxiki baserriko Miren Agirrezabala omenduko dute antolatzai-leak. Izatez Lazkaokoa da, baina Joan Elosegirekin Gabiriara ezkonduakoa. Urte askoan dabil fruituen munduan. Partaidetza beste urteetan bezalakoa izatea espero da. Bakoitzak, Udalak emandako bi saskietan, 30 kilo sagar aurkeztu beharko ditu. Sariei dagokienean, 10.000, 8.000 eta 6.000 pezeta emango zaizkie hiru lehenengoei. Epaimahaikoak Zeraingo Otatza sagardotegiko Joxe Antonio Iparragirre, Gabiriako Ostatuko Martin Irazustabarrena eta Bittor Sukia zaldibitarrek izango dira. Barietatea, sagar sana izatea eta sagarraren neurria hartuko dituzte kontuan sagarra baloratzeko. Aurten berrikuntza bat ere sortu dute antolatzai-leak: sagarrak erosten dituztenei txarteltxo bana emango zaie eta saribanaketaren orduan, saskikada bat errezil-sagar zozketatuko da.



**Gabiriako
Udala**

**III. Errezil Sagar
Lehiaketa
Azaroak 22**

*Egun ederra pasa dezazuela
herritarrok eta kanpotik
zatoztenok!*

KORTA
SAGARDOTEGIA ERRETEGIA
943 88 71 86 GABIRIA

**OSTATU
JATETXEA**
Bazkariak Afariak
Ospakizun bereziak, bataio, jaunartze
Lagunarteko afariak
943 88 79 13 GABIRIA

JYLKI
GOZODENDA
Proba itzazu
"Beasaingo Martintxoak"
Nagusia, 11
Nafarroa Etorb., 19
943 88 82 37 BEASAIN

BEASAIN

Asteburu honetan aurtengo Udazken Kulturala bere azkenera iritsiko da. Urriaren 31n hasi zen, eta azaroaren 15ean amaituko da ekitaldiz josiriko egun batean.

Gaur hasteko, Imanolen kantaldia izango da Usurbe Antzokian. Sarrerak aldeztuak dira, eta salneurria 800 pezetakoa izango da. Kontzertu horretan, 1996an argitaratu zuen diskoa, 'Hori bera da denentzako', eta kantariaren beste hainbat abesti entzun ahal izango dira.

Azaroaren 15ean musika gehiago entzun ahal izango da herriko kaleetan. Egun horretan ospatuko da Txistularien Eguna. Jose Agustin Olanok zuzenduta, eta kalejira bat egin ondoren, Goierriko txistulariek kontzertua eskainiko dute San Martin enparantzan 12:30ean.

Usurbe antzokian azaroaren 14an beste ekitaldi bat egingo da. Antzerkiak tarte luzea edukiko du Udazken Kulturalaren azken egunean, eta hori dela eta, egun horretan Lourvier's taldeak 'Lourvier's story' muntaia taularatuko du. Donostiar konpainia horrek Beasainera ekarriko ditu, era horretan, bai taula gainean eta bai teletan ospetsu egin duten sketch-ak. Baina horrez gain kalean ere izango da antzez-kizunik. Hurrengo egunean Trapu Zaharrak taldeak 'La averia' lana eskainiko du Bi-

Udazken Kulturalaren agur ozena



Postal berriak ditu Beasainek.

deluze enparantzan, 18:00etan. Senar-emazte batzuek ezte baetera doazela autoak matxura bat jasaten du, bultzatzen egin beharrean aurkitzen dira eta egoera geroz eta jasan ezinagoa bihurtzen da.

Goierriko Antzerki Amauterraren Jardunaldiak ere Beasainera iristear daude. Jardunaldi horiek Beasain, Ordizia eta Zegamako udalek antolatuta dituzte, eta bertan Beasaingo Errail taldea, Ordiziako tailerra eta Zegamako Kalaka taldeek hartuko dute parte. Azaroaren 20an, arratsaldeko 8etan,

Ordiziako taldea osatzen duten 9 lagunek Shakespearen 'Romeo eta Julieta' antzez-lana taularatuko dute.

Azkenik, Aurtzaka dantza taldearen jaialdiaren berri ematera gatzokizue. Azaroaren 14an, 19:00etan, Loinazko San Martin plazan izango da saioa. 'Jota, ihautte, soñuzar ta beste' euskal dantzen ikuskizuna prestatu dute. Zangoza, Biasteri eta Lizarrako jotak; porrusalda eta arin-arinak; Oria, Xuberoa eta Luzaideko ihauteriak; Gipuzkoar soinu zahar eta brokel-dantzak; eta Le-

keitiko kaxarranka dantzatu-ko dituzte.

XIV. Odolki dastaketa eta lehiaketa

Udazken Kulturalaren barruan ere aipagarria da azaroaren 14.enean azoka berezia egingo dela Loinazko San Martin enparantzan, goizeko 10etan hasita. Ondoren, 12:00etan, Odolki Kofradiak antolatuta, odolki dastaketa eta lehiaketa izango da. 3. orrian duzue informazio gehiago.

Beasaingo baserrien argazki erakusketa

Beasaingo beste auzoetako eta lehen herri gunean zeuden baserrien argazkiak ikusgai izango dira hilaren 18tik aurrera Usurbe Antzokian. Herriak 200 baserri inguru izan zituen, horietako gehienak, ordea, desagertu egin dira, batez ere herri gunean aurkitzen zirenak. Argizpi Argazkilari Elkarteak Beasaingo baserrien hainbat dokumentazio eta argazki bildu ditu, eta aipatutako aretoan 150 argazki zintzilikatuko dituzte abenduaren 4ra arte. Argazki zaharrez osatuko da, berrienak orain 20 urtekoak direlarik. Etxe horietako asko gaur egun desagertuta dauden arren, beraien kokapena garrantzitsua da herriaren gaurko egitura ulertzeko garaian.

Jon Ordoñez

Ezkiaga Auzo Etxea: V. urteurrenaren astea

Ezkiaga Auzo Etxeak 5 urte bete ditu. Ospakizun hori dela eta, ekitaldiz betetako astea antolatuta dute bertako arduradunek. **Azaroaren 16a**, Auzo elkartearen eguna izango da, 17:00etatik 20:00etara. **17an**: Ludoteka eguna: 17:00etatik 16:00etara, haur jokoak eta 18:30ean, txokolate jana. **18an**: Liburutegi eguna: 17:00etatik aurrera, ipuin kontaketa tailerra eta 18:30ean, ipuin kontaketa 'La Compañia'-ren eskutik. **19**: Tailer eguna: 17:00etatik 20:00etara, espresio, margotze eta eskulan tailerrak. **20an**: Jaia: buruhandiak, jokoak pilotalekuan eta ondoren, txistorra jana. Bost urte hauetan Auzo Etxeak ludoteka, liburutegia eta haur eta helduentzako tailerrak jaso ditu, auzokideek harrera ona egin dietelarik.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
- ✓ Eguneroko menua 800 pta.
- ✓ Udaberrian terraza zerbitzua

Aldez aurretik erreserba egiteko:

943 88 03 15

ORMAIZTEGI

Ander Deunaren jai ospakizunak



Aste honetan Mendi astean murgildurik gaude. Lau egunez mendi desberdinei buruzko emanaldiak izan ondoren, gaur, ostirala, azaroak 13, aste honetako gailurrean aurkitzen garela esan dezakegu. Hain zuen, gaur arratsaldeko 7,30etatik aurrera, Zubipe kiroldegian, Joanito Oiarzabal mendizale ospetsuaren emanaldia ikusteko aukera izango baitugu. Gaurko emanaldiaren izenburua, 'Shisha-Pangma (8.027 m.)' da.

Bihar, berriz, azaroak 14, haur eta gaztetxoek goizeko 10etatik aurrera, Zubipe kiroldegiko arrokodromoan eskalatze aukera izango

dute. Igandean, Ormaiztegi-Ormaiztegi mendi ibilaldia izango da. Irteera, 8,30etan izango da, herriko enparantzatik. Helmuga, Itxune erretegi aurrean jarriko da. Ibilaldia amaitu ondoren partaideei hamaiketako eskainiko zaie. Arratsaldean, 6etatik aurrera, gaztaina jatea egingo da herriko enparantzan. Jarraian Kirol elkartearen mendiko sailaren filmina emanaldia izango da.

Jubilatuaren eguna

Azaroaren 17an eta 18an, Jubilatuentzako hitzaldiak izango dira. Julian Bereziartua medikuak hainbat gaitzei buruz hitz egingo

du, Kultur aretoan, 18:00etan.

Azaroaren 19an, 17:00etan, Emakumeentzako puntu txapelketa izango da jubilatuen elkartearen.

Jaiak

Azaroak 20, Ander Deunaren 1998ko jaiak dagokien lehen asteburua ospatuko da. Egitaraua duzue jarraian:

Azaroak 20, ostirala:

17:00etan: Bote eta toka txapelketak, Jubilatuen elkartearen.

23:00etan: Herriko rock taldeen kontzertua, enparantzan, Udalak antolatuta, Gazte Asanbladaren laguntzaz.

Azaroak 21, larunbata:

Egun Elegantea:

12:00etan: Koadrilen bilkura.

12:00etan: Haurrentzako ikuskizuna herriko enparantzan.

14:30etan: Gazteek antolatutako bazkaria herriko enparantzan.

17:00etan: Haurrentzako txokolate jana Guraso El-

EH-k 100 boto gehiago

Aurreko aldizkarian, Ormaiztegin, EH-ri 100 boto gutxiago jarri genizkion. Beraz, EH-k 265 boto lortu zituen eta ez 165. Barkatu hutsegitea.

kartearen laguntzaz.

18:00etan: Mus txapelketa, Jubilatuen elkartearen.

18:30etan: Zegamako Antzerki Taldeak 'Jo ezak berriro Sam' obra aurkeztuko du, Parroki aretoan.

Azaroak 22, igandea:

Jubilatuaren eguna:

12:00etan: Meza Nagusia, San Andres parrokiaren, hildako elkartekideei eskainia.

13:00etan: Goruntz dantza taldearen saioa herriko enparantzan.

14:00etan: Jubilatuen bazkaria, Lierniko Mujika jattetxean, trikitilariak alaituriko giroaz.

17:00etan: Haur eta helduko airezko globo handian, Ormaiztegi gainak ikusiz, 20 metrotik gorako alturan ibiltzeko aukera izango dute.

Aitziber Murua

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



MARIAN LARREA
BARNE DEKORAZIOA

- ✗ ERREFORMAK
- ✗ PROIEKTUAK
- ✗ ESZENOGRAFIA

☎ 943 88 58 48 - 943 46 34 79
Oriamendi, 30 BEASAIN

ITSASONDO

Txanbela folk taldearen kontzertua, Kultur-Elejiraren barruan

Itasondo Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) barruan sartuta dago. Une honetan 32 udalerrrik osatzen dute UEMA eta Hego Euskal Herriko lau herrialdeak daude ordezkatuta. Udalerrri euskaldunetan euskara arlo sozial guztietara zabaltzea da UEMAren helburua. Hau da, etxean eta eskolan gertatzen den bezala, udaletxean, Osakidetzako zerbitzuetan, lantegian, ekitaldi kulturalan euskaraz bizi ahal izatea.



Kultur-Elejira eskaintzarekin dator oraingoan UEMA. Udalerrri euskaldunetan kulturari bultzada emateko asmoz sortu zen duela 3 urte Kultur-Elejira. Bi helburu nagusi ditu: udalerrri euskaldunetan dauden

artistak mugimenduan jartzea eta egiten dituzten lanak ezagutaraztea; eta UEMAko herrietan urrian hasi eta abendura arte kalitatezko ekitaldi kulturalak antolatzea.

Itsasondori dagokionean, azaroaren 20an eta 21ean izango dira ekitaldiak.

Azaroaren 20an, Txanbela folk taldearen kontzertua izango da, gaueko 10,30etan, Errota pilotalekuan.

Azaroaren 21ean, arratsaldeko 7etan, herri-kirolak izango dira Gaztelu Kirol Taldearen eskutik, Errota pilotalekuan. Herri-kirol jaialdia amaitutakoan, talo festa antolatu da, pilotalekuan bertan.

LEGORRETA

Kultur aste arrakastatsua



Arrakasta handia izan du aurtengoan ere Kultur Asteak. Nabarmentzekoa da jendearen partaidetza handia. Ezinbesteko gauza bestalde, aurrera begira ere horrelako ekintzak nabarmentzeko garaian. Ekitaldi azpimarragarrienak pailazoen emenaldia, antzerkia eta nafarroako peria izan ziren. Azken honetan besteak beste, Zapas Legorretarraren oinetakoan zeuden ikusgai.

Mus txapeketa

Jende askok hartu zuen parte Kultur Astearen barnean Bilkoin Elkartearen antolatu zen mus txapelketan. Patxi Garmendia eta Iñigo Zununegi izan ziren garaileak.

Zinea

Hilaren 8an eman zitzaion hasera aurtengo zine denboraldiari. Jai arratsaldetan eta astelehen iluntzetan izango dugu berriro ere zinea ikus-

gai. Datozkigun egun hotzetarako badaukagu iada entretenimentua, musu-truk eta herritik atera gabe gainera.

Jubilatuak

Jubilatu Elkarateak aurtengoan ere karta jokuko zenbait lehiaketa antolatu ditu. Jubilatuek honako jokuetan parte hartu ahal izango dute: tuten, punttun, txintxon, eskoban, seiko urren eta musen (4 eta 8 erregeta).

Partidak ostiraletan arratsaldeko 4etatik aurrera jokatuko dira jubilatunen. Interesaturik bazaude hilaren 9tik 13ra, 12.00etatik 13.00etara izena eman dezakezu jubilatunen.

Babarrun festa

Tolosan ospatzen den Babarrun Festaren barnean antolatu ohi den gastronomi lehiaketan paper ona egin izan badute ere normalean herritarrek, aurtengoan ezin

izan dute Legorretara txapelik ekarri. Bertan Joxe Manuel Soroizek, Sabinok eta Martin Porruk hartu zuten parte. Ea hurrengo urtean zorte hobea duten!

Anoetara autobusa

Legorretako Erreal zaleak gustora egoteko moduan dira. Hemendik aurrera beren bihotzeko taldea ikustera autobusez joan ahal izango dira.

Ėgunkari berriaren aurkezpena

Hilaren 5ean aurkeztu zuten Kultur Etxean Eginen ordezkoko Ėgunkari berria.

Okindegi berria

Azaroaren 6an inauguratu zuten okindegi berria. Goxo-Goxo izena jarri diote eta Cristinak garai batean denda zuen lokalean dago kokatua.

Josune Amondarain

LAZKAO

Bizkaiko koplak eta gregoriano emanaldiak



Lehenengo emanaldia gregoriano kontzertua izango da, Easo abesbatza: kapera gregorianoa taldearen eskutik. **Azaroaren 18an**, arratsaldeko 7,30etan prailetan.

Gregoriano talde hau duela hiru urte sortu zuen lagun talde batek. Garai batean, seminarioan elkarrekin ibiliak ziren gehienak, eta bertan sartu zitzairen kantu gregorianoarengana. Ondorioz taldea sortzea pentsatu zuten. Taldea herri desberdinetako jendeak osatzen du eta tartean lazkaotarrak ere badira. Aita Xabier Irastorza, praille beneditarra, zuzendari dutela, asko dira eskaini dituzten emanaldiak. Hauek gehienak Euskal Herrian eman badituzte ere, hemendik kanpo ere aritu

dira, hala nola, Caceresen, Huescan, Frantzian eta abar.

22 lagunek osatzen dute taldea egun eta beraiekan turako grina asetzearen kantuan jarraituko omen dute gogobetez.

Bigarren emanaldia, berriaz, Bizkaiko koplak izango da, Xabier Amuriza bertsolarak eskeiniko duena, **azaroaren 25ean**, 21:00tan Maizpide Euskaltegian.

Ezagunak dira Xabier Amurizak bertsolaritzari buruz egin dituen ikerketa eta gogoetak. Azken bi liburukak Bizkaiko koplei buruzkoak izan dira, eta lan horretan bildu dituen hainbat eta hainbat koplak aukeratu, sorta laburretan sailkatu eta abesteko prestatu ditu. Prestaketa horren ondo-



Agauntza txukuntzeko proiektua martxan da

Agauntza ibaiaren egoera asko hobetu da azken urteotan, baina, bistan denez ez dira nahikoak orainarte eginiko lanak erreka erabat atontzeko.

Honen harian, proiektua burutu da, herrian zehar Agauntza ibaia txukuntzeko. Lehenik esan behar da ibaiaren isuria ez dela aldatuko, hau da, ibilbide berbera mantenduko duela. Ibaian zehar presa txikiak eraikiko dira eta dagoen presari berriz, puska bat kenduko zaio arrainei ibilbidea errezteko. Honezaz gain, hormak sendotu, salto txikiak ezarri, eta hormak landare igokariz atonduko dituzte.

ria da Lazkaon emango duen saioa. Kopla zaharrak dira, egile jakinik gabeak, gehienak erromeriatan abesten zirenak eta batzuk batzuk gaur egun ere abesten direnak.

Beste kultur eskaintzak

Azaroaren 17an, Guatemala-lari buruzko ikusentzune-

koa eskainiko du Joseba Cadelok Maizpide Euskaltegian gaueko 9etan.

Azaroaren 16tik 20ra, berriz, Pirograbatuen erakusketa egongo da Udaletxeko Areto Nagusian ikusgai.

Urko Irastorza

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



K. Nagusia 35 Elozegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA



☎ 943 88 55 00 ORDIZIA

IBAI-ONDO



**ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 943 88 05 43 BEASAIN



Alpe

MASTER

**Elektragaiak
Sukaldeko altzariak**

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84 BEASAIN

ORDIZIA

Hitzaro lanerako prest

Amaitu zaizkie oporrak Hitzaro euskara elkarteko kideei eta urtealdi berriari hasiera emana diote jada. Joan den astean urteroko batzar nagusia izan zuten eta bertan arduradun batzordea eraberritu zen. Urtealdian zehar burutuko dituzten ekintzen berri ere eman zuten bertan, guztiak ere iazko jarraipen gisa har daitezkeelarik. Esate baterako martxan jarri dute Hitzarokoek haurrei zuzendutako euskarazko bideo emanaldia.

Aipatu emanaldiak 4 izango dira. Bata joan den larunbatean eskaini zuten, 3, 4 eta 5 urteko haurrei zuzendutako 'Filomenaren untzikumeak eta pinpirin anderea' filma. Larunbat honetarako 'Napoleon txakurtxo abenturazalea' botako dute. Azaroak 21ean, aldiz, 'Fievel mendebaldera doa' pelikula, hau aurrekoa bezelaxe 1, 2, 3 eta 4. mailako haurrei gomendatua. Azkenik, azaroaren 28an 'Bostak eta irlako altxorra' ikusteko parada izango dute 3, 4 eta 5. mailakoek. Guztiak Barrenan izango dira, arratsaldeko 5etatik aurrera, 100 pta.ren truk.

Bideo emanaldiez gain, hor iritsiko dira Gabonetan Olentzeroren etorreraren prestaketak eta baita urtean zehar prestatuko dituzten hainbat ikastaro. Orain bi urte martxan jarri zen 'Txikitxaro' ere indarrean etorri-

ko da aurtengoan ere, geroztik eta haur gehiagok parte hartu nahi baitu larunbat goizeko saioetan. Udalak antolatutako haur parkeetan Hitzarok begirale lanak egiten jarraituko du.

Txirristi-Mirristi, Plisti-Plasta, kantu afaria... ere hor izango dira. Azken batean Hitzarok euskararen sustapen eta normalizazioan lanean tinko dirauela, bazkide kopuruak ere gora egiten baitu urtero eta ia 200era heldu dira.

Euskara ikasteko dirulaguntzak

Euskara ikasten ari diren ordiziarrei Udalak ematen dizkien dirulaguntzak jaso ahal izateko eskaerak aurkezteko epea azaroaren 13an amaituko da. Otsailean hasten direnentzat epea, berriz, otsailaren 26an amaituko da.

Udalak, ikasturte amaieran eskaera guztiak aztertu ondoren, matrikularen %60a itzuliko die langabezia edo ikasten aritu eta 250 ordutik gorako ikastaroa egiten dutenei. Ikastaroa 250 ordu



Jakintza Ikastola saritua

Tamayo enpresak urtero antolatzen duen Luma Idazketako IX. lehiaketan sarituak izan diren lanak jakin berri ditugu. Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako ikastetxeek parte hartzen dute bertan. Jakintza Ikastolak 3. saria lortu du ikastetxe bezala, egindako lanen kuantitatea, kalitatea eta sormena izan dituzten kontuan epaileek. Honez gain, Ikastolako ikasleen hainbat idazlan ere sarituak izan dira. Hortxe ikusten dituzue argazkian: Ihintza Mendizabal (Gipuzkoako 4. saria eta Euskadiko 5.), Izaskun Usabiaga, Maite Aseginola eta Edurne de Arribak (argazkian ez dago bera) diploma bana jaso dute.

baino gutxiagokoa bada %40a emango die. Matrikula 42.000 pta. baino gehiago kostatzen bada, ordea, %60a itzuliko du Udalak.

Lanean egonik euskara ikasi nahi dutenentzat ere badago laguntzarik, matrikularen %20a hain zuzen ere. Edozein dirulaguntza jasotzeko eskoletara joan

behar da, hau da, gutxienez %85eko asistentzia eskatu

ko da. Eskaera egiteko honako hau egin beharko da: udaletxeko bulego orokorretan ematen den eskaera orria bete eta, horrekin batera, langabetu txartela edo ikasle ziurtagiria, matrikula ordaindu dela ziurtatzen duen aurrezki kutxako agiri guztiak, NANaren fotokopia, norberaren kontu korronteko zenbakia (20 zenbaki), aurrezki kutxaren izena eta Euskaltegiko aprobetxamendu orria (ikasturtearen amaieran), guzti horiek udaletxeko bulegoetan aurkeztu.

Aitor Calvillo

Bach musikaldia

Asteburu honetan Bach musikaldiaz gozatzeko aukera izango dugu. Atzo izan zen musikaldiak hartuko dituen 3 kontzertuetariko bat. Berau Barrenan izan zen eta "L'Ensemble Amarillis" taldeak egin zuen bere erakustaldia. Gaur, berriz, Eliz-parrokian ilunabarreko 8:30etatik aurrera 'Aita Donostia' Kamara Orkestra eta San Ignacio Eskolania egongo dira eta bihar, larunbata, ordu eta toki berean Iruñeako Katedraleko Musika Kapera entzuteko aukera izango da Aurelio Sagasetaren zuzendaritzapean.

ORDIZIA

AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta
943 88 72 76

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:

Lanegunetan:

943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



SEGURA

Hiru herritarri omenaldia

Azaroaren 22an, Santa Zezilia egunez, elizako komixioaren inizatibaz, Milagros Elorza, Joxe Goia eta Leandro Telleria herritarrek omenduko dira. Elizan inongo batzorderik ez zenean, bakoitzak bere arloan urteetan zehar egin izandako lana da antolatzaileek azpimaratu nahi dutena. Milagros, elizaren garbitasunaz, lora jartzeaz, etab. arduratu izan zen. Joxek, koruaren zuzendaritzarekin jarraitzen du oraindik eta Leandrok sakristau bati zegozkion lanak egin izan ditu. Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte 12:00etako meza nagusian egingo zaien omenaldira. Bertan, bakoitzak burututako lana azaltzeaz gain, bakoitzaren argazkia elizako erretaulan azaltzen den oroigarri bana ba-

natuko zaie. Hau guztia elizan burutuko bada ere, ondoren koruko kantore eta txistulariekin batera bazkaria izango dute Imazen.

Santa Zezilia

Egun eta leku berean, herriko musikari eta abeslariak Santa Zezilia eguna ospatuko dute. Elizako korukoek, 12:00etan Pedro Bilbaoren meza abestu ondoren, urteroko bazkaria izango dute Imazenen. Herriko txistularien talde nagusia ere bertan izango da. Korukoek azken entsaioa azaroaren 19an, iluntzeko 8etan izango da parrokan.

Pelota

Gipuzkoako klubaren arteko txapelketan, afizionatuek Azkoitiaren aurka jokatuko dute, gaur azaroak 13, gaue-



Azaroaren 7an, herriko odol-emaile elkartearen XXV. urteurrena ospatzeko, 40 odol-emaile inguru elkartziren Zopajale Elkartearen antolatu zuten afarian.

ko 10etan, Baratzte pelotalekuan. Aurrez, herriko mutikoen artekoa izango da. Jubenilek Oñatin jokatuko dute Aloñamendiren aurka.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Errejonialak: Segura 0-2 Usurbil. **Jubenilak:** Segura 2-3 Mariño. **Kadeteak:** Euskalduna 0-2 Aizkorri. **Infantilak:** Elgoibar 2-0 Aizkorri.

Asteburuan etxean: Infantilak: jaien 11:30ean Aizkorri-Bergara. **Kadeteak:** jaien 16:00etan Aizkorri-Ordizia.

Labur-labur

● **Behobia-Donostia:** Jon Iñaki Izagirre, Aitor Ariztimuño, Jon Agirre, Mikel Areizaga, Aitzol Telleria, Mari Karmen Elorza, Ramon Telleria, M^a Angeles Mendizabal, Ibai Telleria, Zeles Sodupe, Iñaki Telleria, Iñaki Auzmendi, Patxi Intxausti, Pello Agirrezabal, Aitor Ugalde, M. Angeles Mendizabal eta Manu Errezola herritarrek parte hartu zuten.

● **Mendi irteera:** kirol eskolarrekoak azaroaren 15ean, Herniozabal mendira joango dira goizeko 8,30etan plazatik irtenda.

● **Telleriarren bazkaria:** azaroaren 15ean, 7.aldiz elkartuko dira Telleriarrak elkarrekin eguna pasatzeko. Eguerdiko leian meza izango dute Liernin eta ondoren bazkaria Patxi erretegian. Bazkalondoren, bertsolariak eta trikitilariak izango dira.

● **Inutilen eguna:** azaroaren 28ko afariarekin ospatuko dute herriko inutillek euren urteroko eguna.

● **San Andres** ermittako eguna azaroaren 29an izango da aurtengoan.

Joseba Telleria

IV. Iparra-Hegoa

Herri bera osatzen dugunon arteko harremanak sendotzeko asmoz, hauxe da azaroaren azken asterako, lehen aldiz Iparraldean (Donapaleun), antolatu den egitarau zehaztua:

Asteazkena 25: Beasaingo Andramendi Ikastolako neska-mutikoez egunpasa izango dute Donapaleuko Ikastolakoekin Iparraldean. Ipuin kontalariak, bideo emanaldiak... izango dituzte.

Osteguna 26: mahai ingurua. Gaia: 'Egoera politiko berria Euskal Herrian'.

Ostirala 27: bertso afaria Donapaleuko Elorri Elkartearen. Bertan, Goierriko eta Baionako Bertso Eskolakoez gain, Unai Iturriaga eta Jon Sarasua arituko dira.

Zapatua 28: goizez, Iparraldeko zein Hegoaldeko



Iparraldetik ekarritako Segurako gerizondoak bere baliokidea izango du hegoaldeko eramanda Donapaleun aldatuko den elorri zurian.

artisauek eta nekazariek produktuen azoka. Arratsaldean futbol partiduak: Iparralde-Hegoalde, nesken eta mutilena. Gauean, musika eta dantza: Etzakit, Etengabe, Apatxe eta Spice Urdeakekoekin Miritiña herrian (Donapaleu ondoan).

Jaie 29: goizez trinkete partidua: Iparralde-Hegoalde. 13:00 aldera zuhaitz aldatzea: harremanen sinbolo modura, Seguratik era-

mango den elorri zuria landatuko da Donapaleun. Ondoren herri bazkaria abeslari eta txarangarekin. Arratsaldean, mutxikoak dantzatzu amaiera emango zaio IV. Iparra-Hegoari.

Oharrak: nesken zein mutilen futbol taldeak ospatzeko jendea behar da. Afari eta bazkari txartelak, autobusak, lotokiak... informazio guztia Elorripe tabernan (943-801002).

IDIAZABAL

Erdialdeko Amerikarako laguntza

Mitch hurakanak Erdialdeko Ameriketako herrialdeetan utzi duen hondamendiari aurre egiteko Idiazabalgo Udala diru bilketa egiten ari da. Horretarako kontu korronte bana daude Kutxak eta Euskadiko Kutxak herrian dituzten bulegoetan. Azaroaren 21ean bukatuko da epea.

Bildutako dirua Nikaraguan bizi den Eburne Aranburu herriarraren bidez bideratuko da. Eburne Aranburu Managuan bizi da eta Nikaraguako Hezkuntza Ministerioan ari da lanean. Zirika Irratian aurreko larunbatean, azaroak 7, kontatu zuenez, Nikaraguara laguntza iristen hasi da eta orain banaketa lanetan sortu dira arazoak. Bertako erakunde publiko eta enpresa pribatuak bete-betean kalteak arintzeko lanean ari dira.

Dirua da herrialde horietan haize boladak utzitako egoerari aurre egiteko duten beharrik handiena. Eburneren esanetan, *"Managuan bertan badaude erosteko gauzak eta horiek eskuratzeko dirua behar dugu. Dirua laguntzeko modurik azkarrena ere bada, erropa, botika eta bestelakoak iristeko denbora asko behar baita, gainera horiek hemen erosteko aukera dugu"*. Idiazabaldik iritsiko den laguntza bideratzeko bi modu daudela jakinarazi zuen Eburnek, bata Gurutze Gorriaren bidez, erakunde horrek departamentu bakoitzak dituen beharren berri baitu. Bigarren aukera kaltetuen gertatu diren Nikaraguako bi departamentutara dirua helaraztea da, lan hori Eburnek berak egingo luke. *"Guk Hezkuntza Ministerioaren bitartez kalte*

gehien jasan duten departamentuetako eskolekin harreman estua dugu. Eskola horietako zuzendarien bitartekaritza dela medio dirua bertara bidaliko nuke". Eburneren esanetan eguneroko bizitzara itzultzeko zailtasun asko dago Erdialdeko Amerikan eta bidalitako laguntza guztia beharrezkoa izango da berez gutxierekin bizitzen ohituta dauden herrialde horietan egoerari buelta emateko.

San Blasak

San Blas jaietarako programa osatzeko urteroko argazki lehiaketa antolatu du Kultura Batzordeak. Guztira bost argazki edo diapositiba aukeratuko dira, lau programa barrurako eta kro-seko kartelerako beste bat. Argazkiak iazko festetan ateratakoak izan behar dute eta azaroaren 27a baino le-

hen Udaletxera edo Kultur Etxera eraman behar dira.

Datorren urteko San Blasak antolatzeke bigarren bilerara gaur ostirala, azaroak 13, izango da Kultur Etxean arratsaldeko 19:00etan.

Diru laguntzak

1998-99 ikasturterako herriko kultura eta kirol taldeei ondoko diru laguntzak ematea onartu zuen Udalak urriko udalbatzean:

Herri Eskola . . .	1.000.000
Zirika Irratia . . .	300.000
Eliza	400.000
Pala Eskola	212.000
Kirol Elkartea .	1.100.000
Korua	60.000
Boloak	62.000
Odol-emaileak . .	59.000
Musika Eskola . .	540.000
Otsoa Elkartea . .	45.000
Guztira	3.778.000

Xabier Urteaga.

ZALDIBIA

Margoketa ikastaroa martxan

Zaldibiko Kultur Etxeak antolatuta, azaroaren 11tik hasi eta ekainaren 23a bitarte margoketa ikastaroa egongo da Patxi Epelderen eskutik. Ikastaroak 60 orduko iraupena izango du eta klase egunak asteazkenero arratsaldeko 7etatik 9etara izango dira. Matrikulak 5.800 pezetako kostua du eta epea pasatu den arren, azken orduko interesatu horrek jo beza Kultur Etxera.

Areto futbola

Aurreko asteburuan etxean jokatu zuten herriko futbolari federatuen taldeek. Emaizta oso onak lortu zituzten.

Gizonezkoak: Zaldibi 4 - Portutxo (Hondarribi) 2.

Emakumezkoak: Zaldibi 2 - Goierri (Urretxu) 1.

Ipuin kontaketa

Datorren ostegunean, hilak 19, Arrate Leunda ipuin kontalariaren saioa izango da Kultur Etxean, 18:00etan. Ipuin kontaketa 3 urte-tik 10 urtera bitarteko haurrei zuzendurik egongo da.

Aralar eta inguruak

Gaur gauean, azaroak 13, Koldo Zubeldia herritarren diapositiba emanaldia izango da Kultur Etxean, 22:30etan. Bertan Aralar eta inguruen argazkiak ikusteko aukera izango da.

*Saroi Jauregi
Iñaki Gurrutxaga*



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta batatz beste

MANDUBIKO BENTA

jatetxea

MANDUBIKO GAINEAN
Urolatik Goierriarako bidean

Tfnoa.: 943 88 26 73

ZEGAMA

San Martin azokak hainbat ikusgai

Azaroaren 14an San Martin ganadu, barazki eta artisau azoka ospatu-ko da Zegamako herrian. Arretxen jaioa den Joxe Azurmendi ezagutzeko hartutako hiru egunen ondoren, urteroko egun handia ospatu-ko da.

Goizeko 10ak aldera, txistulariek emango diote hasiera egun honi. Goizean zehar, 'Herriko Abereen lehiaketa' egingo da, behiak, behor-rrak, ardiak, bildotsak... Bestalde landare, fruitu eta barazkien erakusketa ere izango da. Herri eta inguru-ko artisauak eskulana nola egiten duten agerpena ere emango dute.

Eguerdiko 12ak inguru-
an, Iruñako 'Hegoalde Ikastolako Haur Zarpantza-

rrek' beraien erakustaldia emango dute herriko kaleetan zehar. Ordu batean, abere lehiaketaren saribanaketa egingo da. Jarraian txistularien eskutik kontzertua izango da herriko plaza inguruan.

Arratsaldeko 5,30etan buruhandi eta erraldoiak herriko kaleetan zehar, txistularien laguntzaz. Hauek eragindako korriken ondoren, zegamarren arteko aizkora apustua izango da: Esteban eta Jose M. Arakama anaiak, Jose M. Esnaola eta Inazio Katarainen aurka, hamar enbor aizkora moztu beharko dituzte eta trontzan hamar korte eman. Ondoren sagardo dastaketa izango da kiroldegian.

Egunean zehar, 'Joxe Azurmendi ezagutuz' ekitaldiari amaiera emanez bere bizi eta pentsamentuari buruzko erakusketa bat ikusgai izango da Kultur etxeko areto nagusian. Egun

Ordiziako Antzerki taldea

Goierrri mailan aurrera doan antzerki zikloari jarraitpena emanez, azaroaren 15ean, arratsaldeko 6etan eta zinean, Ordiziako Antzerki Taldeak 'Romeo eta Julieta' lana antzeztuko du. Ziklo honen barnean Zegaman antzeztuko den azkeneko obra izango da honakoa.

honetatik aurrera orainarte lortu den eta aurrerantzean jasotzen joango den Joxeren lan bilduma liburutegian egongo da edozein kontsultarako.

Eguna umore onez pasatzen jarraitzeko, gauean, 'Arakama Anaiak' trikitilarien txanda izango da.

Maidar Azurmendi

Vendi.
EDURNE
JANARIDENDA

Egun ona opa dizuegu!

☎ 943 80 15 66 ZEGAMA



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Igartzeta Oletako kioskoa, Begue janaridenda, Montoia harategia, Erosle, Armendariz, Haritza, Osiña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, **Idiazabal**go Ahizpak eta **Ormaiztegi**ko Iñaki Erosle.



ZEGAMAKO
UDALA

Zegamako
Udalak
San Martin
azokara

inguratzen zareten herritar eta
kanpotar guztioi egun zoriontsua opa dizue.



Aizkora-trontza apustua Zegaman San Martin azokan

Azaroaren 14an, larunbata, arratsaldeko 6ak aldera Zegamako frontoia desafio baten lekuko izango da. Lau zegamar: alde batetik Joxe Mari eta Esteban Arakama anaiak, bestetik Inazio Katarain eta Joxe Mari Esnaola, eta tartean 10.000 duro. Egin beharreko lana: 10 enbor aizkoraz eta beste 10 trontzaz ebakitzea. Lehenengo aizkora edo trontzan egin, bikote bakoitzak erabakiko du.

Zegamako herri-kirol taldean ibiltzen dira laurak. Arakama anaiak (Joxe Mari 38 urte eta Estebanek 35) trontzan, Katarain (38 urte) aizkora eta Esnaola (22 urte) koskol biltzen. Entrenatzen ari ziren batean, Esnaola aizkora entrenatzen dabil azken aldian, Joxe Mari Arakamak erdi txantxetan desafioa egin zion Esnaolari. Hau kotxea hartu eta Inaziozengana joan zen. Inazioz berriz, "nik inoiz ez diot desafio bati ezetz esaten, ez dut inoiz



Joxe Mari Esnaola, Inazio Katarain, Joxe Mari eta Esteban Arakama. Inazio eta Esteban basurdehizera joatekoak ziren, herri-kirola ezezik ehiza ere gustoko dute.

atzera egiten, beti aurrera. Berdin da galdu edo irabazi baina saiatu gabe ez naiz geratuko. Segituan joan eta baiezkoa emateko esan nion".

Ezin ados jarri

Egurak kana erdi ingurukoak izango dira, oraindik eztabaidan ari dira trontzarako edo aizkorarako izango diren handigoak, bakoitzak bere aldera egiten du. Ezinezkoa da 4 gizonak ados jartzea, batzuk besteak beti aizkora ibili direla eta abantaila dutela, besteek trontzan gutxiago direla...

Lagunarteko giroa nagusi da beraien artean, baina elkarrizketa guztia eztabaidan pasa dute.

Inork ez du esan nahi zenbat edo nola entrenatzen duten. Trontzalariek oraindik ez dutela kana erdikorik aizkoraz ebaki, besteek trontzan gutxi egin dutela... Beti aurkakoa ari da entrenatzen, norbera ez. Katarainek dio Arakama anaiak ondo entrenatuta daudela, eta faborito direla, "baina oraindik plazan eraman duten estutu gogorrena eraman beharrean daude. Aizkora enbor t'erdiko aldea

kendu beharrean gaude bestela jai daukagu. Apustu hau galdu egingo dugu baina hori ez da hor geratuko. Honek ekarriko du zintea, ekarriko du buelta". Joxe Mari Arakama txoferra da eta "momentu honetan ez dut entrenatzeko denborarik, niretzat uda garai hobe da. Galtzen badugu, berriz udan jokatu dugu" dio.

Giroa berpiztu

Esnaola gaztea afizioarekin datorrenez zaharrenek aurrera egin dute desafioarekin, zaletasunari eusteko. Duela 18 urte inguru beste apustu bat izan zen herrian. Orduan 3 bikote ziren, bat Arakama anaiak osatzen zuten eta azkenak geratu ziren, Katarain ere apustu hartan zen eta bikote irabazlean gainera. Ordunik dator lehia, baina harrezkero Zegaman ez da horrelakorik egin. Garai batean bazen aizkora giro hori, "gure aitonek ere egiten zituzten gisa honetakoak. Zegaman duela 60 urte izan ziren desafio sonatuak. Aizkolari onak beti izan dira eta giro hori berpiztu nahi dugu".

MANOLO
Edaritegia



Pintxoetan aukera haundia!

© 943 80 12 36
ZEGAMA

Zegamako
OSTATUA



Arrain eta mariskoetan espezializatua
☎ 943 80 12 99

BENITO

Harategia
Urdaitegia



© 943 80 02 05
S. Barbara, 8 **ZEGAMA**



BAZTARTXO
TABERNA

Egun zoriontsua pasa dezazuela
eta gau hobe!

Atari kalea ☎ 943 80 03 40 **ZEGAMA**



Zegamako jostun ikasleak

Orain dela 36 bat urte ateratako argazkia da honakoa. Zegaman, Rosario Urizarrek zuen jostun eskolako ikasleak dira.

AITZKORPE
TABERNA
Egun ona pasa dezazuela opa dizuegu!
 S. Martin, 15 ☎ 943 80 11 62
ZEGAMA

ZEGAMAKO KONTSUMO
KOOPERATIBA-k
egun ona pasa
dezazuela opa dizue!
 S. Martin, z/g ☎ 943 80 11 37 **ZEGAMA**

BERRIZ ARANBURU
ERROPADENDA
 Nagusia, 8 ☎ 943 88 04 53 **BEASAIN**


TABERNA
 ☎ 943 80 03 10
ZEGAMA

URBIZU ☎ 943 80 19 99
ZEGAMA
 ROGS. 11.141462 - 14.01.462/SS
OILOTEGIA



HAURREN AHOTSA 

Azaroak 21

Zure seme-alabek zeregin garrantzitsua izango dute.



1 Nortasuna

Naizen moduan errespetatua izateko eskubidea, nire nortasuna garatzekoa, nire sinesmen eta tradizioen arabera bizitzekoa.



7 Babesa

Nire gorputza eta nire sentimenduak mindu ez diezazkidaten eskubidea, tratatu txarrik, laidorik, edota sexu-abusurik ez izatekoa, zapaldua ez izatekoa.

2 Familia

Maite eta orientatzen nauen familia batean bizitzeko eskubidea, gurasoekin batera jarduerak burutu eta haiengandik bereiztua ez izatekoa, nire ongizaterako beharrezkoa ez bada behintzat.



8 Parte hartzea

Informazio egokia jasotzeko eskubidea, beste haur batzuekin bildu eta parte hartzekoa, eta nire iritziak aintzat hartuak izan daitezen.



3 Osasuna

Zainketa medikuak izateko eta bizitza-aztura osasungarriak garatzeko eskubidea, drogetatik libre eta kutsatu gabeko leku atsegina batean bizitzekoa.



9 Ongizatea

Nire gurasoek ni duintasunez garatu eta bizitzeko behar besteko baliabideak eskuratu ahal izateko eskubidea.

4 Hezkuntza

Besteekin batera bizitzeko ikasteko eta hobe izateko hezkuntzarako eskubidea, zoriontsu naizen eta ikasteko gogoz joaten naizen eskola bat izatekoa.



10 Bakarra

Indarkeriarik gabeko gizarte baketsu batean bizitzeko eskubidea, elkartasuna, tolerantzia eta adiskidetasuneko izpiritu batean hezitzekoa.



5 Jolasa

Jolasteko denbora, lekuak eta jolaskideak izateko eskubidea.



11 Haurrak aurretik

Erabakiak haurren premietan oinarrituta har daitezen eskubidea.

6 Berdintasuna

Diskriminatua ez izatekoa eskubidea eta trataera eta atentzio bereziak jasotzekoa, behar izanez gero.



12 Elkartasuna

Herriek munduko haur guztien garapenean lagun dezaten eskubidea.



Haurrek beren eskubideak aukeratuko dituzte. **Bozkatu!**

 **unicef**

Guztian
aurreratuko
duzu
Kalitatean ezik

Zatoz

PRYCA